Epaila-Marzo
27
Astartia-Martes
Bilbao, 1934

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 irko. iru ile
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "
Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.646 zenbakija

Egunekua

'Erramu"

Guk, mutiko-aruan, Abaŕ - igandiari, "Eŕamu-eguna" esaten geuntsan.

Eta "Eŕamu-eguna" guretzat, jai aundija ixaten zan, Jon deunaren auŕeko iluntzian soluetan imiñiko ziran gurutzeak onestuteko eguna ixaten zan-eta.

Doniane auŕeko iluntzian. "Doniane-suben" argiťan gurutzatuta soluetaratuko ziran gurutzetxubai, gurutza biguŕtuta ikusi orduko, "gurutza-geyak" esaten geuntsen, eta eurak txortatuta imindeko baso ta bide-ertzetako sasitzak-ziaŕ ibiliťen gintzazan.

Gurutza-geyok saratzezkuak ixaten ziran, azala eŕez eta oso-osuan ɔape neke barik kentzen yakezan abaŕ metxubak. Azalaz jantziťa dauzanian, leun-leunak ixaten dira; azala kentzen yakenian, baña, arantzaz ɔeterikuak. Eta gurutz-geyon aldin gustija ortxe eguan: Josu'ren arantzazko burestunaren aŕitzeko arantzak eukiťian. Ori zala-ta esaten geuntsen, guk, "gurutza-geyak".

卐 卐 卐

Gurutza-geyok, Doniane-auŕeko iluntzian gurutza biguŕtuta soluetan imiñiko ba-ziran, "Eŕamu-egunian" onestu-egin biaŕ ixaten ziran. Onestuten eruateko. baŕiz, azalak kenduta imiñi biaŕ ixaten ziran; neuŕi-neuŕira ebagita, ta eurai kenduriko azalakaz txortatxubetan lotuta.

Txortoi buruɔak janzteko, ereñotsak biaŕ ixaten ziran. Eta buru-austerik geyen emoten euskun arazua, auxe ixaten zan: ereñots loratsubena zuzendutia.

卐 卐 卐

Ereñotsat, ene jayoteŕijan, ugariɔak ziran; loraz ugariɔak ziranak, oŕatiño, ez ain ugariɔak. Eta eragozpen au zala-ta, gurutza-geyen txoŕta-buruba norberak gura ixaten eban lez apain ereñostutia, batzuk uste ixango daben baño zeregin neketsubagua ixaten zan.

Ene jayotetxe-auŕian be ereñotsa ba-zan, eta urkulu ɔiguŕturiko ereñots jasua ta aundi-aundija ixan be. Lorarik, baña, iñoz ezkeuntsan ikusten. Eta lora uŕiťasun a zala-ta, aťiťa zaŕak, auxe esaten euskun; "ereñots-aŕa" zala.

Eta gure ereñotsa "aŕa" zalako, gure gurutza-geyen txoŕta-buruɔak, lora bako ereñotsakaz ereñostuta onest ubiaŕ ixaten ziran.

Zeozer aldeź eztagon eragozpenik eztago-ta, gure lora bako ereñotsak be bere gozaŕitxuba antxe ixaten eban. Ereñots loratsubak eroyezanai, arei lora orizka edeŕai txukun eretxiťa, batak eskuba luzatu, ta ɔestia katzamaŕak ezaŕi; lora gustijetatik muskilduta iminden ebezan, ba; Doniane-auŕeko iluntzian gurutzeari oŕi bat imindiko be ereñots barik.

Guziari, ostera, aŕa ta lora bakua zalako, begiratu be ezeutsen egiten... Guk, iñok be ukutuge, oso-osorik etxeratuten geban.

Itxusija ixatiak be, bere aldetxubak antxe daukoz. ba.

卐 卐 卐

"Eŕamu-egunian" eriko eŕtxadonan onestuten ziran gurutza-geyok etxeratuten gebazanian, aťiťa zaŕa eurakaz jabetuten zan, eta uŕengo Doniane-auŕeko iluntzeraŕte ez gebazan baŕiro ikusten.

Doniane-auŕeko iluntzian etxe-auŕeko basatxaunotxuko jualien otsa entzuten zanian, baña, gure solo-motetara begiratuzkero, su-argi txikitxubak ugari ikusiko ziran; eta euren argiťan, besapiak gurutzaz beteta ebazan aťiťa zaŕa be bai.

Suba, "Eŕamu-egunian" onesturiko ereñots-abaŕakaz egiten eban; eta su arek, onestuoa zalako, soluetako koko kaltegaŕi gustijak, urte gustirako eŕe egiten ebazala, esaten euskun.

Gero, gurutza-geyak, banan-banan eskubetaratuta, gurutza biguŕtuten ebazan. Guretzea egiteko, aizto-eŕpiñaz aŕakala bat egiten eutsen, eta euretariko zati txikitxu bat aŕakalatik saŕtu. Geigaŕitzak, ereñots -oŕi bi iminden eutsazan, eta soluaren erdijan saŕtuta imiñi.

Aťiťa zaŕak esaten euskunez, gurutza areik ixaten ziran urte aretako ekaitz kaltegaŕi gustijetatik solo areik zainduko ebezan gurutza deunak.

¡"Eŕamu...!" ¿Zelan aiztu, gu, "Eŕamu -eguna?"

卐 卐 卐

Gure mutiko-arotik ona be, "Eŕamu -egunik" asko ixan dira. Azkenengua, baŕiz, igazi dan igandekua.

Areik "Eŕamu-egun" ospetsubak, baña, geure mutiko-aruaz batera igazi zirala dirudi, arein laŕatzik be ija eztogu iñun ikusten-eta.

Oraingo "Eŕamu-egunetan", orain bixi garan luŕalde oneťan beñepein, gurutza -gei txortatxu bat be ezta ikusten, ezta eurak sorbaldetan ebezela eŕtxadonaratuten ziran mutiko moŕoskotxurik be.

Oŕatzetik arako brus, praka, arkondara ta abarketa baŕi edeŕak soñetan ebezela, areik, orduko mutiko azaŕijak erakusten eben euzko-usaña, orain, ¿nun idoroteko?

Doniane-auŕeko iluntzia, baŕiro, be etoŕiko da. Aťiťa zaŕa, baña, onenian, ezta etoŕiko... Eta gure euzko-solo - munetan ereñots onestubaz subak egiteko aťiťarik eztogu ixango, ezta "Eŕamus" onesturiko gurutza-geyakaz gurutzeak egin eta soluetan imindeko be.

Geure euzko-oťuŕa zaŕoin egaiz egite onek bijotzeratuten dauskun iťuna, ezta txikija oŕaťiño. Geuk ezaguturiko euzko -oťura garbi-edeŕak, geu bixirik garala, ¿il-egingo ete-dira?

URIBIŤAŔTE'TAŔ IBON.

Deunen bixitza

Jon deuna, lekarotia

Lekarotien aŕtean aipaťuenetakoa izan zan Jon deuna, Tebaida'ko Likopolis deritxon urian jayo zan 330'gaŕen urtean. Lanetik bizi ziranak eta beartsuak zituan gurasoak. Bera be, ogibidean sartzeko garaira eldu zanean, arotz-laŕnean asi zan. Bizipide onetan jardunki egin zituan urte batzuk.

Ogetabost urte bete zituan garayan, baña, biozkada zoŕotzak aizatu eban. Lekarora aldentzeko gogoa biztu yakon biotz -baŕenean. Bereala egiztatu eban buruan erabilan asmoa ta irakasle zaŕ baten gerizpera bildu zan lekarora.

Aŕigaŕia zan, benetan, Jon deunaren apaltasuna. Egun batez irakasleak agindu eutson une atan eskuan erabilan arbazta igaŕ eta erdi-usteldu bat lurperatzeko ta oŕiak eta sustaŕak urten arte ureztatzeko landara ori egunero. Baŕegaŕia zan agian, agindua ta, gañera, neke aundiko eginbeaŕa. Legoa erdian ibili beaŕ izaten eban beaŕ zan ainbat ur eroateko. Etzan oŕegatik muxindu Jon deuna. Nekeak eta otzak jasanaz, egunean bi bider ureztatzen eban arbazta igaŕa. Geroago, baŕiz, eŕota-aŕi aundi bat erabiltzera beartu eban irakasleak. Baita Jon'en apalki egin be.

Irakasle au il yakonean, bost urtez or -emenka lekaidetxez lekaidetxe ibili zan. Gero, oŕatio, Likopolis'tik legoa biko baztaŕ batera aldendu zan eta arkaitz goŕi baten galuŕean jaŕi eban bere bizitokia, arkaitz-biotzean gelatxoa egiñaz. Beŕogei urtez bizi izan zan zulokote onetan.

Larogetamaŕ urte bete zituan arte egon zan bizitoki basatian. Bedaŕ gordiñakaz eta zugatz-zuztaŕakaz alikatzen zan. Egun osoetan jarduten an otoigiten etengabe, loari aldi laburtxoa emonaz. Bere bizitokira yoakiozanak maitekiro ta anai-antzean artzen zituan. Oŕatio, etzan iñoiz uŕeŕatu aren gelara emakumerik.

Oso ospatsua izan zan aldi aŕetan Jaungoikuak Jon deunari aizatu eutson igarle -arnasa Kezkapean artegatuta ebiltzan asko yoakiozan uŕundiko luŕaldietatik gerokoaren argi eske.

Eŕoma'taŕen aginteŕian sartu ziran indaŕez etiopiaŕ basatiak eta Tebaida osoa azpikoaz gain irauli eben. Ezin eutsi gudalburuak basati arein erasoari-ta, Jon 'engana joan zan. Ara zer erantzun eutson onek: "Zure gudariak uŕiago izan aŕen, eraso egiezu arerioai ta garale izango zara. Jaungoikuak lagunduko dautzu. Eraso eutsen gudalburuak basatiai ta baita eŕaz azpiratu be.

Todosi kaisaŕar be bi bideŕ agertu eutson beste ainbeste gudalditatik garale urtengo zala; baña irugaŕen garaikundea irabazita bereala ilgo zala. Alan jazo zan.

Jon deunarentzaz or-emen jaulkitzen zituenak entzunda, saspi lekaroti abiatu ziran aren bizitokirantza. Ibilkaitza zan, ordea, bidea ta bat bakaŕa igon zan arkaitzaren galuŕera; gastiena, alegia. Besteak aren zai beragoan lotu ziran. Lekaroti gastea Jon'en gelatxo-ondora eldu zanean, atea itxita aurkitu eban. Esan eutsoen igandietan eta noizpait larunbatetan baño ez ebala edegitzen bere bizitokiko leyatilatxoa. Itxaron eban larunbata arte eta, aguŕ-egiten asi zan unean bertan, Tebaida'ko jaurlea auŕeratu yakon. Onengana zuzendu zan Jon auŕenengoz. Au zala-ta, gasteak berekautan iñoan, ain apala izan aŕen, aundikien zale zala Jon be; etzala, beraz, berak uste eban baizen apala. Igaŕi eban Jon'ek, ordea, gasteak biotz-baŕenean erabilazan oldozkunak eta igikoŕ eta maiteki itzegin eutson.

Jatsi zan gastea ɔeste lagunengana ta jazorikoa edestu eutsenian, gustiak igon ziran Jon deunaren bizitokira ta egun asko egin zituen an aren abotik onu aŕigaŕiak entzunaz.

Ikertaldi au jazo zan egunetik lasteŕ il zan Jon deuna. Larogetamaŕ urte eukazan il zanean. Auŕetik aizatu eutson Jaungoikuak ilgo zan eguna. Beraz, aŕetaz gertau zan eriotza beaŕ lez artzeko. Iru egunez iñoŕ ikusi barik bakaŕtasun osoan egon zan Jaungoikuaren auŕera garbi ta kutsu -gabe joan nai eban lekaroti deunak. 394 'gaŕen urtean il zan.

Ekito'k igarlea deitzen dautsoe norbaitzuk Jon deunari.

A.'TAŔ T.

Luger deuna, gotzaña

Luger, Tegirin ta Lipeburge'ren semea, Frisia'n jayo zan oŕ 743'gaŕen urterantza. Gurasoak kistaŕak zirian ta naiko aberatsak. Luger amairu-amalau urtedun zala, gurasoak Utrech'era bidali eben, ango gotzain Gergori Bompagi ziñopa deunaren ikasle izanagana, aren ikastolan jakingavak ikasteko. An Bere otseintzarako Jaungoikuaren deyari erantzunda, ulea ebagi ta uri aretako Gaizkatzale Gurenaren lekaretxean bere buruŕa Jaungoikuari eskeñi eutson. Jaupaltseiñordeťuteko Yorck England'eko uri entzutetsura joan zan ta lau urtean Alkuin ospetsuaren entzule izan zan ta ain gizon jakintsu aren ikastolan jakintzan auŕerapen andiak egin be. Utrech 'era atzera etoŕi zanean Gergori'k besoak zabalik aŕtu eban. Albirka Gergori'ren ondorengo Utrech'ko gotzañak Deventer'era bidali eban, an Kisto'ren ziñismena zabaltzeko. Uri oŕetan Saxondaŕak manatutako txadona baŕiro eragi eban ta txadon oŕetan zaŕa eragi eban Lebin deunaren gorpuzkiñak obiratu ebazan Jaungoikoz idorota. Luger'ek, bere burua aintzakotzat ez eukalako, gura ez-aŕen, Albirka'k jaupari egin eban ta Frisia'ra bidali, ango zingeen aŕtean gure ziñismena zabaltzen ekiteko. Luger'en izerdi ta nekeak etziran alpeŕik galdu. Saspi urte baño len eŕirik geyena gure siñismeneratu eban. Gauzak onan egozala Bitikin Saxonia'ko "Dukea" kistaŕen auŕka jagi zan ta Luger'ek andik urten baño Kisto'ren alde bere odola emotea gurago eban-aŕen Bitikin'ek andik alde eragin eutson. Oŕazkero, Albirka gotzaña ta biak Roma'ra joan zirian Lun bigaŕena eritxon doipuruagana; doipuruak txerarik begikoena egin eutson ta, oeŕz ganera, ainbat deunen gorpuzkiñak emon eutsozan amaitzat. Roma'tik bere abeŕira joyala, Benevento'n Beditaŕ lekaideakana jota, eurekaz batera lekaretxean urte bi igaro ebazan. Alkuin'en aolku ta eskariz, Karla Andi'k andik atera ta Lutosa'ko Araudun Lekaidien lekaretxeko buru izentau eban. Gero, Karla Andi'ren benderatutako Frisia'ko bost eŕkitan gure siñismena zabaltzen bidali eban. Andik Faestland ugaŕtera alde eginda, ugaŕte aretako Buru zana bere eŕi ta gusti kistaŕ egin eban, andiki aren semea bera be ugutzau edo bateatuta. Karla Andi'k Saxonitaŕak benderatu ebazanean, Luger bera oŕetarako mukeŕ ageŕtu-aŕen, bere kezkai jaramonik egin-barik Munster'go lelengo gotzain egin eben ta Luger'ek itzez, alatz aŕigaŕia ta batez be bere bizitz jaungoikozaleagaz emoten ebazan ikasbiderik gorengoakaz zinge asko ta asko egiazko siñismeneratu ebazan. Beko Saxonia'n beste lekaretxe bat eragi eban, orain Luger-lekaretxea deritxona.

Eŕi askok Luger gotzañari zoŕ dautsoe egiazko siñismena: bere ondasunak txironenak zirian ta euretaiko batzuk gotzañaren mayan jaten eben. Eten-barik eroaten eban aldean zurdazko jantzi latza, baña au bere adizkide mami-mami batzuk ez bestek ez ekian; baraugin andia zan ta soñari beaŕ-beaŕeko janaria be saŕitan ukatuten eutson.

Iñoren onik ikusi ezin dabenetariko batzuk Karla Andi Kaiseŕagana jo eben Luger gotzañaren ostez au ta ori ta bestea esaten: Luger buru gitxiko gizona zala, gotzaintzea luŕean taŕaz erabilela, ta eztakit zer be geyago. Luger Kaiseŕagana jo -beaŕean auŕkitu zan bere burua zurituteko. Gaba bakaldegi-ondoko aŕoztetxe edo ostatuan igarota biaramon goxean bakaldun-jauregiko andiki bat erdu yakon bakalduna begira eukola esaten. Luger egunean-eguneango jaupari-otoitzak esaten egoan ta eurak amaitu-aŕte etzan joan. Salatariak jazokun au be euren asmoetarako oŕatza arira letxe etoŕelakoan egozan. Bakaldunak iru bidaŕ deituta ain belu zelan etoŕen itandu eutson. "Jauna—erantzun eutson Luger gotzañak-be, egin-egiñean onetantxe be zeure guraria egin izan dodalakotan Zelan ori?—esan eutson bakaldunak. Ara, Jauna; zure deyak aŕtu nebazanean otoitzak egiten nengoan bai? ta zuk arako gotzain egin ninduzunean agindu bat emon zeustan, Jaungoikua gizonak baño beñago esteko, bakalduna bera baño be beñago esteko. Erantzun oneri bakaldunak edeŕ eritxi eutsen ta Luger'eri bere burua zurituten auŕera jaŕaitzen itxibarik atzera bere goteŕkira bidali eban, beraz goralbenik andienak eginda ta auŕerantzean be olantxe zintzo jaŕaitzeko esanda.

Luger'ek alatz asko egiten ebazan ta igaŕle be ageŕtu zan, Normandaŕak egunen baten luŕalde aretan egingo ebezan ondamendiak auŕeztik iragaŕi ebazanda. Bere atzenengo gexoaldian, gaitz txaŕa ta luzia izan-aŕen, otoitza kuts-barik esaten ebazan ta jaupea egunoro egiten eban. Bere bizitzako atzenengo egunean, epaŕaren 25'kaŕenean, goxean goxetik egin eban itzaldia Coesfeld'go txadonean ta bere eŕiari betiko aguŕ egin eutson. Andik, ordu biko bidea eginda, Billerbeck'era joan zan ta jaupea eginda eŕi aretan bigaŕen itzaldia egin eban. Bere lagunai uŕengo gabaz ilgo zala iragaŕi eutsen, ta alantxe jazo be egin zan epaŕaren 26'gaŕenean, oŕ 809'gaŕen urterantza. Gorpua, bere aginduz, Werden'go Gaizkatzale Guren-gurenaren txadonean obiratu zan, ta Jaungoikuak deun olandaŕ a ugoratuteko, beronen gorpuzkien bitaŕtez alatz asko egin izan dauz.

Laŕakoetxea'taŕ B. Y.

MUXIKA

EUZKEL-IXENA.—Jon Joseba, euzkel -ixenagaz, ugatzau dabe Lopategi'taŕ Jon, eta Lauzirika'taŕ Deunore'n seme jayopaŕija, aťa-amabitxi ixanik Bengoa'taŕ Jon eta Uribe'taŕ Josebe, zorijonak, guraso ta aťa-amabitxiak eta auŕera bide oŕeri.

GAXORIK.—Ayartza'taŕ Dugen, Azketa'taŕ Joseba, Beŕoxalbiz'taŕ Miren Gurutzne eta Erezuma'taŕ Alese gaxorik aurkitzen dira.

ABEŔI-EGUNA. —Gaŕ aundija dago emen-ɔe, egun onetan Gazteiz'era juateko Lauzirika'taŕ Jon, gure abeŕkidiaren. Berebil-aundijan, Gazteiz'eratuko dira Muxikaŕak zaŕ eta gaste JEL gaz alkaŕtuta eta iñoŕ baidago Berebila'ko txaŕtela aŕtu barik azkaŕ ibili daŕela nai ezpadau etxian geratu txaŕtelak. Enbeita'taŕ Balendin'ek daukoz bost laueŕleko ta erdi bakotxa. Berebilak, goxeko seiretan uŕtengo dau Muxikaŕ-Euzko-Batzokijan beste eŕi bateko abeŕkidiak eruan biaŕ dauzalako gero beraz gaubekatza ondo zaindu eta seirak auŕetik Batzokira ez aztu.

BIZKARGI-MENDI.

Errijetatik

ONDARROA

ITZALDIJA. — Igazi dan larunbatez Euzkeltzale-Bazkuna'k eraldutako osagile gayatzazko laugaŕen itzaldija esan zan Euzko-Batzokijan, Artetxe'taŕ Iñaki, Zumaŕaga'ko osagile ospatsua ixan zan izlari. Eŕestasun osoz erabili eban berak aukeratu eban gaya ta entzulien txalo ugariɔak entzun ebazan. Auŕez "Altzeta" izlari sutsubak itzaldi labuŕ ta sutsu bat egin eban.

ANTZEŔKIJAK.—Igazi dan igandez antzeŕki jai edeŕ bat egin zan Batzokijan. Lekeitio'ko Euzko-Batzokiko antzeŕti-taldia ixan zan antzezlari. Antzezlari gustiɔak ondo baño obeto ɔete eben euren arazua ta gustiz txalotuak ixan ziran. Beobide'k euzkeraldutako "Abaroa ta Babesa" iru ekintzetan eta Alzaga'ren "Txibiribiri" atal bateko baŕegaŕija antzeztu ebezan.

ABEŔI-EGUNA. — Zaletasun andija dago uriko abeŕtzalien aŕtian Abeŕi-egunez Gazteiz'era juateko. Taŕantak imintekoɔiaŕ-ɔiaŕeskua da zenbat juan biaŕ diran jakiťia ta augatik ila onen 25'gaŕenaŕte bakaŕik aŕtuko dira juan gura dabenen ixenak. Juan gura dabenak, ba, aldiz ibili biaŕko dabe. Mendigoxale-talde bat oñez juango da, Bariku deunez emetik urtenda.

ITZALDIJAK.—Larunbatez zortzi, ila onen 30'gaŕen Aŕiola'taŕ Pantzeska, ondaŕuťaŕ osalari yayuak itz egingo dau.

BEDERATZIUŔENA.—Egunokaz ospe andijagaz ospatuten da eŕtxadonan Ama Neketsuaren bederatziuŕena. Notintza ugariɔa uŕeratzen da bertara.

OKEŔAK.

ERRENDERI

ETXE-ALDAKETA.—Edo uri-aldaketa deitu beaŕko diogu Uri-Buru-Batzaŕ'eko lendakari dan Irigoyen'daŕ Polentzi'k egin dunari.

Donostia'ra joan zaigu bizitzera eta eskatu digu, izpaŕingi onen bitaŕtez, eŕenderiaŕ orok agurtzeko eta adierazteko aldaketa.

Bere bizi-leku beŕia da: Fuenteŕabia 8 -3'gna.

Ondo izan Donosti-aldian eta saŕi etoŕi gure txoko maite ontara.

EZKONTZAK.—Laisteŕ ezkontzen dira Amiano'taŕ Josebe, emakume abeŕtzalea, eta Kortaxarena'taŕ Joseba, pasaitaŕ abeŕtzalea.

—Orobat Moneo'taŕ Jokine eta Lizardi 'taŕ Kepa, gure adizkide ona. Baikera beŕian zoriontsu izatea opa dizuet.

GAZTEIZ'A.— Egunetik egunera geitzen dijoa Gazteiz'a joateko zaletsuna. Abeŕtzalien aŕtean besterik entzuten ez da.

Batzokian esaŕita dauden eŕeskadak izenez eztalita daude eta oŕela jaŕaitzen badu notintza ugari joango da Eŕenderi'tik Gazteiz'n.

Joan-etoŕla ere ez baita garezti, 9,70 luŕleko.

Abeŕtzale jatoŕa dirala erakutsi digute emakumeak, gizonak ainbat bai baidiara izenak emandakoak.

Tira, atzetik zabiltzaten abeŕtzaleoik azkeneko egun aŕte zuen izenak emateko ez egon, joan gauŕ bertan Batzokira eta eman zuen izena.

Bi duro gatik gizona!

AIZTOAZ ZAURITUA. — Igarotako igandez gertaera tamalgaŕi ɔat izan zan gure eŕi paketsu onetan. Etxebeste'ren sagardotegian zeuden talde ugarietatik irten ziren kalera bi mutil gaste: Zugasti'taŕ Joseba Mirena eta Akuntza'taŕ Eŕapel. Mutur-joka edo asi ziran bañan Eŕapel'ek aizto edo "kutxiloakin" saspi lekutatik zauritu zun Joseba Mirena gizarajoa.

Iñoŕk garbi azaltzen ez du buŕukaren -zergaitija.

Guk Akunza ori ezagutzen ez degu bañan bai "Joxe Mari", eta guk bezela diote gustiak, aŕitzen dirala oŕi oŕelako bat gertatzea. Ain mutil ixil ta paketsua da.

Epaitza edo "juztizija" beaŕ dan bezela egino dalakoan gaude. Euzkotaŕon izkiluak ez baidira "Albacete,,'ko aizto oyek.

"Joxe-Mari" bere oñez joan zan "kuarte-sokoŕora" odola ikaragaŕizko eran betzen zuala eta bera indartsu ta osasuntsua izan ez balitz oneskero gorputz zan.

Zergatik eŕi ontan geŕtatzen dana ez da noski Aprikan ere gertatzen.

Osagile edo "mediko" bat leku jakiñean egiten ez da eta lau edo bostek koŕika ibili beaŕ zauritua odol-uztutzen dagon biťaŕtean.

Noren eŕua dan ez dakigu bañan zuzendu beaŕ dala, bai.

Eŕenderi diñako eŕi batean naiz astean ta naiz igandez jakin beaŕ genduke oŕelako gertaeretan "mediku" bila nora jo.

Uste det "personak" gerala eta ez abereak.

ANDONI.

YURRETA

DURANGO'KO UDALETXIARI. — Lengo asteko idazkijan esaten neban zerbait Kanpo-Santuko bidiagaťik. Gauŕkuan, be, esan biaŕ dautzubet "Ebro" etxe auŕiɔarik azkaŕ ibili daŕela nai ezpadau etxian geratu txaŕtelak. Enbeita'taŕ Balendin'ek daukoz bost laueŕleko ta erdi bakotxa. Berebilak, goxeko seiretan uŕtengo dau Muxikaŕ-Euzko-Batzokijan beste eŕi bateko abeŕkidiak eruan biaŕ dauzalako gero beraz gaubekatza ondo zaindu eta seirak auŕetik Batzokira ez aztu.

BIZKARGI-MENDI.

Geure elia ta geure Aberria

AŔITOKIETA.

Ara geuk, abertzaleok, euzkeraren aurka egiten degun gauza bat.

Euzkel-eŕietan Batzaŕak egiten ditugunean, izlari erdeldunak eramatea.

Eibaŕ'en eta Bergara'n, Durango'n eta Elorrio'n, Azpeitia'n eta Zarautz'en, Elgoibaŕ eta Ondaŕoa'n ez degu beaŕ erderazko *oradorerik* euzkeldun izlariak baizik.

Eta au, ez eŕi oyetan erderarik ez dakitelako, ez. Benavente ta Martínez Sierra'k baño erdera geyago ba'lekite ere berdiñ litzake. Nik askotan entzun izan det, "Abadiano'n eta Apatamonasterio'n eta Garai'en eta oŕelako eŕietan ez dabil ondo egiten abertzaleak erderazko itzaldiak egitea, olako eŕietan erderarik ez dakite ta".

Eta au ez da aŕasoia, eŕi oyetan eta beste euzkel eŕi gustietan erderazko mitiñik eta konferentziarik eta itzaldirik ez degu egiñ beaŕ ez erderarik ez dakigulako, erderarik nai, ez, de, gu, la, ko.

Erdeldun izlarientzat bai dago nun lana egiña. Dijuazela erdel *oradoriok* Araba'ra ta Nabaŕa'ra, eta Bizkaya'n baŕiz Sestao'ra, Portugalete'ra, Valmaseda'ra, Kaŕantza'ra ta abaŕ, eta euzkel-eŕietara ez ditezela etoŕi, abertzaletasunen azia zabalduaz egiten duten mesedea baño, erdera eraɔiliaz ematen duten erakutzi txaŕakiñ egiten duten kaltea aundiagoa dalako.

Beste gauza bat (eta barkatu danok), kendu dedila gure artetik geure euzkerari iŕi ta paŕe egiteko sortu dan beste moda bat: Izlariak lenengotan, asieran, itz batzuek euzkeraz egitea ta gero ogeien bat itz euzkeraz egindakoan jo erderara ta itzaldi guztia erderaz.

Euzkeldunen artean, itzaldi osoak euzkeraz beaŕ ditugu. Euzkeraz edo batere ez.

Euzkel eŕietatik izpaŕingietan erderaz idazten dutenari aŕen bat. Eibaŕ'ko ta Laŕabetzu'ko, Gernika'ko ta Orozko'ko, Elgoibaŕ'ko ta Elgeta'ko izpaŕ edo beŕiak, ez diote batere ardurarik ematen belaŕimotzai. Eŕietako izpaŕak eŕirako ta eŕitik kanpora dabiltzan eŕiko - sementzat dira, ta abek, baldiñ abertzaleak ba'dira (ta abertzaleak izango dira, noski "El Día" ta EUZKADI irakuŕten ba'ditузte) euzkeraz idatzitako izpaŕak berdiñ-berdiñ irakuŕiko dituzte. Berdiñ-berdiñ edo nozago.

卐 卐 卐

Gustiok dakizute gure abendaren seme bati, Gipuzkoa'taŕ mutil gaste zoritxaŕeko bati gertatu zayon ez biaŕ ikaragaŕia.

Ez det emen ezeŕ azaldu beaŕik, danok, zeuen buru biotzetan dezutelako bere zoritxaŕ gaiztoa. Bere izena aitatzia aski det.

Idiakez.

Bera dala ta, gauza bat galdetu biaŕ dizutet.

Idiakez'eŕi ogeitabat urterako kartzela ezaŕi ziotenean ¿zer egiñ genduan geuk, euzkeldunok?

¿Uste al dezute mutil gixagaxo oŕi diogun zoŕa ordaindu degula?

Nik bai dakit zenbat lagundu zayon, nik bai dakit gure algunak bere aldez zenbat lan egiñ duten, nik bai dakit euzkotaŕ danok geure diruakiñ lagunduko diogula bere auzia, au da, geure eliaren auzia, Madrid'en irabasi al izateko.

Baña au ez da naikoa.

Guk, abertzale onak eta euzkeldun zintzoak izan ba'giñan, beste gauza bat egiñ beaŕ genduan.

(Daŕaike.)

España'ko Erriketa

ZELETA

España'ko eŕiketa edo politikak berekin darama bere betiko leloa: eŕkaltsain edo ministro norbaitzuen leku utzitze-nai zúŕumuŕua.

Ez geiťu batere aŕitzen, eŕkala edo eŕepublika soŕtu zanetik onera biťaŕtian 44 eŕkaltsaiñek, ministrok, beren lekuak "aitzaki-maitzaki" utzi izan diťuzten lateŕi batean gauza lotsagaŕi ori gertatzeak.

¡Ain oiťubak gaude, izan ere, Madrid'ko "crisis" ontubak entzuten...!

Atzeŕiko eŕiketa ots oyek adiyerazten digutenez, beŕiz ere España'ko gobernuan soŕturik da ogasun edo azienda eta langile arazodun eŕkaltsañen aŕteko beren lekubak utzi-nairiko itzotsa...

¿Zer dala-ta?

Ez da eŕez jakiten; aitzakitzat aŕtu izan dutenaren bestekoz gerta oi-dalako, geyenetan, leku oyek ustearen zergaitija.

España'ko izpaŕingi edo "paperak" iragaŕtzen digutenez, ogazundun elkaŕtsain Marraco jaunak miñez egon biaŕ du bere uste ta iritziyaren auŕka edo bestera jokatu ɔutelako bere lagunak eta aldun edo diputadurik geyenak, iru ilabeterako atzeratuaz eŕkaltsain onek berialaxe erabakitzea nai zuan urte ontarako zergati-dirutza edo "presupuestoa,,'ren onirizpena.

Oŕengatik Marraco jaunak ezdu noski gogoz bere lekuan jaŕaitu nai. ¡Gizarajoa! Eta ain leku arduratsubari bertan-bera ustere ote dijuan, España'ko beŕijak diyote.

Langile-arazodun "ministroaren" leku utzi-naya bidezkoagoa dala dirudi, gogo ori azkeneko opoŕaldijan etxegin. Ekin euki duan zoritxaŕ edo arinkerijak bultzarik agertzen ba'digu.

Astakeri aundi bat derizkiyogu Madrid 'ko etxegiñen opoŕaldi ori paketzeko egiñik duan egintza ariñari: asteko langintza -ordubak 48 ordutik 44 ordutara gutxitzeari

Nunbait uste izan zuan Estadella jaunak lan-ordu-gutxitze oŕetan zegola ain gogaikaŕi izan dan opoŕaldi oŕen azkena; baña itxukeri ori gogoŕkiro gaiztetsiyaz España'ko-izpaŕingirik geyenak ongi adiyerazten dutenez, erabaki oŕekin lendik gordiñagotzea baizik ezdu loŕtu izango Estadella jaunak etxegiñen arazo minbera ori.

Eta ludi guzijan baŕna ondoren negargaŕijak baizik loŕtu izan ez diťuan lan-ordu-gutxitze ori erabakitzeko, etzuan eŕkaltsain oŕek ainbeste egunean nekatzen ibili biaŕik.

Berialakoz, beintzat, Nagusi Elkaŕte edo "Federaciln Patronal" deritzayonak asaŕe bizijan erabaki beŕi ondagaŕi oŕen ezezpene edo degoraziñoa eskatzen du, adiyeraziyaz erabaki ori auŕera eramateake España'ko ogasunai ekaŕi edo soŕtu lezazkijon ondore kaltegaŕijak.

Izan ere, ¿nork ezdaki asteko langintza 48 ordutik 44 ordura gutxitzea erdala biderik egokijena etxegintza ugaritzeko?

Baldintza oyetan, ¿zein "txoro" izango da Auŕezkikutxan edo Caja de Ahorros 'ean 100'eko 5 batere keskarik gabe jasotzen aŕi dan diruba aterate, etxegintzan, zenbat kostako zayon ezdakin eta noiz bukatuko duan asmatu ezin dezaken etxegintzen asiko danik?

Baña, "arira" jota, ¿aski ote da "ministro" baten utsegite bat bere lekuba bertan-bera utzi eta gero "bere bizitza guziyan" lateŕijaren lepotik urteko 10 anai edo "amaŕ mila peseta" jasotzen jaŕaitzeko?

Idazkai edo artikulo onen asiyeran esaten degun bezela, eŕkala España'n soŕtu zanetik eta gauŕ aŕte 44 "ministro" beŕi aldatu dira: Alcalá Zamora, Azaña, Lerroux, Martínez Barrio, Maura, Prieto, D'Ower, De los Ríos, Casares Luiroga, Largo Caballero, Albornoz, Domingo, Giral, Zulueta, Carner, Viñuales, Companys, Roca, Barnes, (Domingo), Sanchez Albornoz, Lara, Rocha, Asensi, Iranzo, Samper. Guerra del Río, Feced, Paratch, Rico Avello, Pita Romero, Cirilo del Río, Ordax, Pi y Suñer, Palomo, Yabenes, Valdez, Estadella, Cid, Marraco, Alonso, Hidalgo, Santalo eta Madariaga.

Eta danak, "República de Trabaŕadores" 'en "kontura" jaten jaŕaituko dute bizitza guzijan, betire itzetik-oŕtzera esanaz:

"Gracias que nos queda la satisfacción del "deber" cumplido".

¡España'ko gauzak!

Fábrica de escopetas finas de caza. Eizara'ko suizkilu berezijen olea.
Agirre y Bastida
EIBAR. — GIPUZKOA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
TOLOSA
Teléfono, 154